EUSKERA GORDETZEKO ARRAZOI TA BIDEAK

Ikusten danez puska bi ditu lan onek; bata da

ARRAZOYAK

JAUNGOIKO'AGANDIK artu ditugun doayetatik bat, aundiyenetakoa, izkera da. Bera da abereetatik ondoen desberdintzen gaitubana. Eta mundutar guziyok jatorri bat degulako, izkera ere bakarra zegokigun, ta alasen izan genduban mundubaren asierak milla ta zortzireun bat urtetaraño.

* * *

Aldi luze ori bete zanean, Babel'ko dorrea zeruraño jasotzeko asmoan zebiltzala mundutar arroak, nastu zituban Jaungoiko'ak izkuntz desberdiñ asko ematen zieztela, ta galerazitzen ziyela era orretara beren asmo okerra.

* * *

Jakintsu batzuben iritziyan euskera izandu zan Jaungoi'koak mundubaren asieran emandako izkuntza. Reste jakintsu askoren iritziyan berriz Babel'ko dorrean sortu ziraden izkuntzetako bat da euskera. Eta izkidatzalle guziyak ao batetik diyote, gaur munduban ezagutzen diran izkuntz zarrenetakoa dala euskera, zarren-zarrena ezpada alaere.

* * *

Jaungoiko'ak guri ezarriya balitz euskera, naiz mundubaren asieratik lurreko baratz ederrean, ta naiz Babel'ko iznazketan, euskera zintzoro gordetzeko arrazoi aundi bat da ori. Alperrik ez baiditu ematen Jaunak bere doayak, baizik arduraz zaintzeko edota are obetutzeko.

Eta aiñ zarra izatea beste alderdi onik ez balukere euskarak, ordubantxe ere arretaz iraunazitzeko gauza baita gure izkuntza.

*
* *

Beste alderdi on geyago ere baditu euskerak bera gordetzera beartzen gaituztenak. Guziz da *aberats* edo ugaritsuba gure izkuntza, gauza guziyen izenak ditubalako edo izen-gayak beñepeñ bai. Guziz da ederra bere itz eta itzaldiyetan, zallenetan ere bai, txit egoki ta erraza dalako, ta osoro dalako leun ta gozoa aoan. Guziz da azkenik jakintsuba euskera, beste izkerarik ez bezela, beraren izenak gauzten izatea adierazten dutelako.

*
* *

Jakintsu arrotzak zerbait ezagutu izan dutenean euskera, beraren aunditasun ta garaitasunez arriturik eta txoraturik bezela gelditu izan dirade, bera ikasi ta obeto ezagutzeko gogoarekin, beste izkuntzak ez bezelakoa dala aitortubaz. Arrazoi berriya da ere beraz au euskaldunok maite izan dezagun gure izkera.

*
* *

Gauz on bat dadukagunean gure mende, bera galtzen degun arteraño oartzen ez gerade askotan zer gendukagun gure eskubetan. Euskerarekin gertatu zaiguna alabaña. Gizaldi batzubez onunztik osoro utseztuta (despreziatuta) iduki dute euskaldunak beren izkuntz arrigarriya ta elizgizonak ez gutxiyena.

Beste arrazoya gure euskara gorde dezagun osoro galdu bañon len, orretarako bideak laburkiro erakusten ditudalarik. Banoa bada bigarren puskara.

BIDEAK

Euskaldun guziyok bata-besteakin beti euskaraz itzegin ta idatzi (izkribatu) bear degu, gaizki edo ongi. Eta on litzake billera, batzoki ta alkartegi guziyetan txakur txiki baten isuna (multa) ipiñiko balitz beste izkeraren bat darabilkinantzat. Eta euskara txarra dubanari zuzenbidea eman bear zayo, San Jose'ren siete domingoak, baipor zierto, ta beste orrelako ainbeste esaera oker īsillik uzten etzaizkala.

*
* *

Gure etxe ta sendiyetan (pamilietan) euskara erabilli bear degu, bai izketan, baitaere ingi (paper) eta idaztiyetan (liburuetan), ume ta

mirabetarañoko guziyak gure izkuntz ederra ikasi dezaten. Goiz-arratsetako ta otordubetako otoitzak, baitaere agurtza (arrosariyoa), euskeraz egin bear ditugu gure etxetar eta bizi lagunakin.

*
* *

Neska-mutillentzat eta gazteentzat euskarazko ikastola ta dakiregiyak (kolejiyoak) ipiñi bitez iñolaere albada, ta eziñean erakusle euskaldunak izan ditzatela beñepeñ. Batezere euskalerriyetan aiñ kaltegarri izan dan zorigaiztoko erraztuna ayenatu dedilla beñ-betiko gure neska-mutiltxoetatik.

*
* *

Eliz eta bakartegiyetan (comentubetan) ere sarrerazi dezagun euskera. ¿Zer pekatu egin du izkuntz eder onek bera ez nai izateko toki deun (santu) ayetan? Aiñ zuzen ere izkera guziyetan euskara bada garbiyena edota arnegu (blaspemi) izugarririk artu ez dubana. Euskalerriko elizetan agurtzak, bederatzi-urrenak, gis orretako beste otoitzak, eta itzaldiyak (sermoyak) euskeraz egin bear dirade. Isekazko (burlazko) euskeran ez ordea, izlari (sermoigille) bati askotan nik entzun diyotan erara, *jenero umanoaren perdiziyoa.* Orrelako sermolariyak, edo euskera ikasi bear dute, edota sermoitegira igo bear ez dute.

*
* *

Euskeraren ta euskal-gauzen etsai diran ingi ta idaztiyak artu bear ez ditugu erre edo puskatzeko ezpada. Lotsagarriya baita gure laguntasuna izan dezaten. Euskalerriyaren aldeko gai guziyai ordea egiñala guziyan laguntza opa bear zayote diruz eta beste era askotara, gazeta, aldizkingi (rebista) ta idaztiyai ez gutxiyena.

*
* *

Eta era berean euskeraren ta euskal gauzen aldeko aginbideak izatera sayatu bear gerade alegiña guziz. Aginbideak gure aldekoak izan ezkeroz alabaña, Ekautetxean (Diputaziyoan) ta Udaletxetan (Ayuntamentubetan) batezere, euskera gorde ta zabaltzeko aurrerapen aundiya gendukake, askoz ere errazago litzakelako orduban euskerazko ikastolak edota erakusle euskaldunak ipintzea, baitaere euskal-gauz guziyai diruz eta bestela laguntzea.

Eman ditudan arau oyek zuzen-zuzen betetzen baditugu, euskera ez galdu, aurrera joango zaigu.

BLAS PRADERE Y ARRUTI